

# ERASO MATXISTEN

## AURREAN

- » Ez ahaztu erasoaren erantzukizuna erasotzailearena soilik dela.
- » Egin edo egiten dugun ezerk ez du eraso bat justifikatzen.
- » Baietza soilik bai entzuten dugunean da. Ez badugu hori errespetatzen eraso baten aurrean egongo gara. Ezezkoa modu askotan adieraz daiteke, baita gorputzaren adierazpenarekin ere.
- » Errespetatu besteen erabakiak eta nahiak. Alkohola edo drogak ez digute besteen egoeraz aprobetxatzeko bidea ematen.
- » Edonor aske da nahi duen moduan jantzi, makilatu, dantza egiteko,...
- » Ekidin epaiak eta utzi jendeari nahi duen moduan adierazten bere gorputza, izaera,...
- » Festak herritar guztientzat espazioa dira, denon esku dago berdintasunean eta indarkeriarik gabe bizitzea.

# LAGUNTZA TELEFONOEN

## INFORMAZIOA

- » **SATEVI-24H:**  
Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimentzako telefonoa. Etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima izan diren emakumeentzako informazio eta arreta zerbitzua da.
- » **LARRIALDIAK-SOS DEIAK-24H:**  
Edozein larrialdietarako arreta zerbitzua.
- » **UDALETXEKO GIZARTE ZERBITZUAK:**  
Astelehenetik ostiralera, 9:00-14:00
- » **UDALTZAINGOA:**  
Jaietako ordutegia: 9:00-21:00
- » **ERTZAINZA:**  
Larrialdi egoera batean beraien laguntza beharko bagenu edo salaketa bat jartzeko.



**SATEVI- Zerbitzu espezializatua-**

**24H**

**900 840 111**

**LARRIALDIAK-24H**

**112**

**GIZARTE ZERBITZUAK**

**943 14 71 32**

**UDALTZAINGOA**

**656 784 867**

**ERTZAINZA**

**943 083 780**



ZESTOAKO UDALA

## ZER EGIN ERASOTZEN BANAUTE?

- » Defendatzeko eskubidea daukat. Laguntza behar dudanean eskatuko dut, horretarako daude laguntza zerbitzuak. (Atzean larrialdi telefonoak)
- » Ez bazara gustura sentitzen, arriskuan zaudela uste baduzu, jazarririk sentitzen bazara,...egin kasu intuizioari eta laguntza eskatu.
- » Leku seguruen identifikazioa oso garrantzitsua da, beharrezkoa denean hara bertaratu ahal izateko.
- » Konfiantzazko norbaitekin harremanetan jarri bakarrik ez egoteko.

## ZER EGIN DEZAKEGU ERASO BAT IKUSTEN DUGUNEAN?

- » Galdetu erasotuari zer moduz dagoen. Babesa adierazi eta laguntza eskaini. Garbi adierazi ez duela ezer txarrik egin.
- » Arreta medikurik nahi duen edo salaketa jarri nahi duen galdetu. Ez epaitu eta ez inposatu ezer. Erabakia berak hartu behar du.
- » Erasotua izan den pertsona ez utzi bakarrik berak ez badu nahi, epaiak ekidin eta ez zalantzan jarri kontatzen dizuna. Ez da balorazioak egiteko momentua. Errespetatu berak erabakitzen duena.
- » Erasoa edo erasotuaren datu eta informaziorik ez zabaldu.
- » \*Erasoa taberna, txosna gunee edo kontzertu batean gertatu bada, argiak pizteko eskatu, musika gelditu eta erasotzailea identifikatu ostean gunee horretatik bota. Modu argian adierazi ez direla jarrera matxistak onartzen gunee horietan.

# ZESTOAKO FESTETAN ERE ERASO MATXISTEI PLANTO

